



Red Ciudadana de Acogida / Hiritarron Harrera-Sarea

Gogorragoa izango da irteera

Bi hilabete luze igaro dira "etxean geratu" tik, eta badirudi atzo izan zela.

Bi hilabete honetan, erakundeek eta gizarteak onartu nahi ez zuten errealitate bat azaleratu da. Etxerik, baliabiderik edo sare propiorik ez duten pertsonen kopuru handia. Zer eremutan nabarmendu da arazo hori?

Bizitegi-baliabideak. Donostia, Irun, Errenteria eta Tolosako **udalek eta baita Foru Aldundiak** ere, etxerik ez dutenei "etxean geratzeko" aukera emateko **baliabideak** jarri dituzte. Nola egin dute, ordea? **Astiro** egin dute, horretarako, premia handia zegoen arren. **Modu murriztailean**, ehun pertsona utzi baitituzte kanpoan. **Bizitegi-baliabide desegoki batekin, Atano pilotalekuaren kasuan**, ez baitu balio duintasun minimo batekin artatzeko. Baina nabarmentzekoa da gaur egun berrehundik gora pertsona daudela bizitegi horietan, eta, dagoeneko harrera-baliabideetan zeudenei eta oraindik ez daudenei gehituta, **350 pertsona baino gehiagoko multzoa daukagula**.

Goseari aurre egiteko elikagaiak. Hori izan da konfinamenduak larriagotu duen beste oinarritzko premia, neurri batean hura arintzeko aukera ematen zuten baliabideak itxi baitira. Horri buruz ere, udaletatik emandako erantzuna partziala izan da, jende asko, baita familiak ere, egurats gorrian utzi dira eta.

Alokairua ordaintzeko laguntzak. Egoera prekarioan zeuden hainbat pertsonak lana galdu dutenez, ezin dute beren etxebizitzaren alokairua ordaindu, eta kalean daudenen errenkadak handitzeko arriskua dago. Alor honetan ere **oso motela izaten ari da erakundeek laguntzek emandako erantzuna**. Eta kontratu-baldintzek eta gainerakoek kanpoan uzten dituzte laguntzak behar dituzten familia asko.

Poliziaren jarduna. Zenbait polizia-jarduerak ez dute kontuan hartu zenbateraino den berezia bizi izan den egoera; izan ere, salatuak izan baitira abandonatutako eraikinetatik jendea kanporatzeagatik, zubi baten azpian bizi ziren gazteen aurkako indarkeriazko esku-hartzeak egiteagatik, isunak jartzeagatik eta mugikorrek justifikaziorik gabe kentzeagatik, baita ere gatazkak konpontzeko neurrigabeko esku-hartzeak egiteagatik.

Egoera horretan, **hainbat gizarte-erakunde inplikatu dira lehen egunetik irtenbideak bilatzen. Hiritarron Harrera Sarea izan da horietako bat:**

- Egunero **eskatu dugu**, arazoa jasaten duten pertsonekin batera, horiek hartzeko **nahikoa bizitegi-baliabide martxan jartzea**
- Konponbideak bilatzen lagundu diegun pertsonen **datu-basean 200 izen-deitura daude, 30 familia barne**.
- **Gizarte Zerbitzuekin batera lan egin dugu** helburu horrekin.
- Egoera horren berri eman dugu, eta, horretarako, **eguneroko Buletin bat egin** eta banatu dugu, non beharren argazkia, erakundeek erantzun eskasa eta gure eskariak jaso diren.



Red Ciudadana de Acogida / Hiritarron Harrera-Sarea

- Bertan zehaztu dugu zer inplikazio izan dugun administrazioa iristen ez zen lekuetan elikagaiak banatzen: gaur egun **200 pertsonen elikagaien beharra betetzen dugu**.
- Hiritarren elkartasuna antolatu dugu berrogeita hamarren bat pertsonak osatzen duten boluntario sare batean, konfinamendu osoan zehar lanean aritu dena, eta zenbait merkataritza- eta ostalaritza-establezimendutako elikagaien banaketa solidarioa bideratu dugu.
- Era berean, **ekarpen ekonomiko solidarioaren** berri zehatz eman dugu. Ekarpen horien egile gisa **200 pertsona** zenbatzen ditugu orain, eta horiei esker aurre egin ahal izan diegula beharrei.
- **Mantak, arropa eta oinetakoak**, datuak kargatzea eta ikasleentzako ekipamendu informatikoak eskaini ditugu.
- **Mediku-larrialdietara** lagundu dugu jendea, eta **botikak** eskuratu dizkiegu.
- **Sukaldeko ekipoa** eta askotariko hornidurak eman dizkiegu (dutsak, butanoa) edo udalak garbigailu bat jartzea lortu dugu, oraindik ere bizitegi-baliabideetatik kanpo dauden batzuei.
- Laguntzak iristea erraztu dugu, endosoen bidez.

Eta, jarduera honetan, **sarean lan egin dugu beste erakunde batzuekin**, hala nola Kolore Guztiak eta Haurralde-Agisas erakundeekin.

Gaur egoera bereziki kritiko bati aurre egin behar diogu. Dagoeneko sumatzen hasiak gara konfinamenduaren amaiera, **eta badugu arrazoirik pentsatzeko erakundeek ez dutela borondaterik etxerik gabeko pertsona horien beharrei erantzuten jarraitzeko**. Horietako asko kalean jartzeko bezperan gaude. Horregatik, duela hilabete kaleratu genuen **Ez itzazu kalera bota Manifestua** <https://cutt.ly/0tKaVgi>. Dagoeneko mila pertsona eta 50 herritar-erakunderen babesa du. Gipuzkoako hainbat eremutako 25 agente zentzu bereko adierazpenak egiten dituzte youtubeko kanalean ikus daitekeen bideo honetan: <https://youtu.be/yzK4tkf8Ot8>.

Botatze hori eragozteko egiten ditugun eta egingo ditugun jardueren esparruan, **Giza Kate Solidario** baterako deialdia egiten dugu, eskaera zuzentzen diegun hiru erakundeak lotzeko: **Udala, Foru Aldundia, eta Eusko Jaurlaritza. Data: maiatzaren 27, asteazkena, 19: 00etan**. Horrela ikusarazi nahi dugu gure exigentzia Donostiako Udalak hurrengo egunean egingo duen osoko bilkuraren aurrean. Helburu horrekin, **mozio bat aurkeztu dugu** bi eskaera nagusi hauekin: **egungo urgentziazko baliabideei eustea**, beharrezkoak eta egokiak diren bizitegi-baliabideak gaitu bitartean, **eta jantoki sozialak** irekitzea. Giza katea osasun-baimen eta baldintza guztiak betez egingo da, distantziak zainduz, kontaktu fisikoa saihestuz eta maskarak erabiliz.

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Donostia 2020/05/20